

LURRA, LANA, JANA

LARRABETZUKO NEKAZARITZA BULTZATZEKO PROGRAMA

Baserritar gehiago elikagai gehiago eta hobeak ekoizten
Pertsona gehiago bertoko kalitatezko elikagaiak kontsumitzen

Larrabetzu bizimodua lurretik atera duen herria izan da duela gutxira arte. Nekazaritza jarduera horrek bere izaera, ohiturak eta paisaia baldintzatu ditu.

Belaunaldiz belaunaldi, elikagai osasuntsu eta gozoak ekoizteari buruzko jakintzen altxorra bat pilatuz joan zen, janaria ingurumena errespetatuz ekoizteko gaitasuna.

Baina, geroz eta gutxiago, eta zaharragoak dira lurra lantzen dihardutenak.

ZER NAHI DUGU?

- Herri osoarentzat onuragarria den proiektua garatzea, baserritar gehiago, landutako lur gehiago eta kalitate hobeko elikagaiak kontsumitzen dituzten herritar gehiagorekin.
- Era horretan, lanpostu gehiago, osasuntsuago, iraunkorrago eta bere izaerari lotuago dagoen herria eraikitzea.

ZER EGINGO DUGU?

- 1- Larrabetzuko baserritar nagusien belaunaldiari egin duten lana merezi duten bezala aitortu, beraien esperientzia eta jakintzak dokumental batean batuz.
- 2- Landu gabeko lurra dutenen eta nekazaritzan jardun baina lurrik ez dutenen artean akordioak proposatu, Udaletxearen laguntzarekin.
- 3- Geroz eta herritar gehiagok Larrabetzun era naturalean ekoizten diren kalitatezko elikagai gehiago kontsumitzea, baserritarrari zuzenean egindako erosketarekin edota tokiko merkataritzaren bitartez.
- 4- Etxe gehiago animatzea beraien hondakin organikoak banatzera, baserritar berriek batu eta konpostatu ditzaten. Lan horrengatik konpentsazioa jasoko dute baserritarrek, nekazaritza-jardueraren lehenengo urteetan laguntza gisa.

Programaren dokumentu osoa <http://www.larrabetzu.eus>-en irakur dezakezu.

NOLA PARTE HARTU PROIEKTUAN?

- Landu gabeko lurra izanda, nahiago baduzu hauek ekoizpenean eta zainduta egon daitezen.
- Lurretik bizi nahi baduzu, baina lurrik ez baduzu.
- Bertoko baserritarren sasoiko produktu ekologikoak lortu nahi badituzu.
- Komertzio bat edo ostalaritzako establezimendu bat baduzu eta bertoko produktu gehiago eskaini nahi baduzu.
- Zure hondakin organikoak baserritarrek batu eta konpostatu ditzaten nahi baduzu.
Gurpide Elkartearekin harremanetan jarri (gurpide.elkartea@gmail.com) edota utzi zure datuak Angulerin, eta zurekin harremanetan jarriko gara.

HITZALDIA

‘Lurra, lana, jana Larrabetzu’ programaren aurkezpena.

Dokumentalaren aurrerapena.

Maiatzak 13, ostirala, arratsaldeko 19:00tan Angulerin.